

Sarrera

Terminalak telefono-hartunera konektatzea

ADSL modema instalatzea

Modema konektatzea

Modema eta konexioa desinstalatzea

Sarrera


Dokumentu honetan, USBan ADSL konexioak egiteko **Zyxel Prestige 630-C Series** edo **Zyxel Prestige 630-13** modema ongi instalatzeko jarraibideak deskribatzen dira. Modema instalatu nahi duten bezeroentzat argibide izatea du helburu.

Dokumentuak bi atal nagusi ditu: modema instalatzea eta martxan jartzea.

Terminalak telefono-hartunera konektatzea

Modemarekin batera mikroiragazkiak emango dizkizugu, eta orain arte telefono-hartunera zuzenean konektatzen ziren terminal guztietan ipini behar dira.

Alegia, telefonoak, faxak, modem tradizionalak, etab. telefono-hartunera mikroiragazkien bidez konektatu behar dira. ADSL modema bakarrik konektatuko da zuzenean telefono-hartunera, tartean mikroiragazkirik ipini gabe. Ikus 4-1 irudia.



4-1 irudia

ADSL modema instalatzea

OHAR GARRANTZITSUA : modema ez da USB atakara konektatu behar instalazioak berak eskatu arte.

Eskuliburu honetako pantailak Windows XP sistema eragiletik atera dira; litekeena da beste sistemetan pantailak desberdinak izatea, baina prozesu orokorra antzekoa da.


Windows 98 sistema eragileen kasuan, sistema eragilea **instalatzeko CDa** behar da; izan ere, baliteke modema instalatzeko prozesuan behar izatea. Instalatzeko diskoa ez baduzu, baliteke prozesuan behar izango diren fitxategiak karpeta hauetan egotea:

- C:\Windows\
- C:\Windows\System32
- C:\Windows\System


Beraz, sistema eragileak eskatzen duenean, W98ko CDa sartu edo goian adierazitako bide-izenak markatu behar dituzu. Baliteke behar dituzun fitxategiak karpeta banatan egotea.

Instalazio-prozesuarekin hasteko, modemarekin datorren CDa CD-ROM (edo DVD-ROM) unitatean sartu behar da. CDa bere kasa abiarazten da; aukera hori aktibatuta baldin badago, CDa bere kasa exekutatu eta instalazio-prozesua martxan jarriko du.

Bestela, instalazioa exekutatzeke prozesua martxan jarri ez bada, joan MI PCra (2-1 irudia), hautatu instalatzeko CDa sartu duzun irakurgailua eta exekutatu Open.exe fitxategia (2-2 irudia).




2-1 irudia



2-2 irudia

Bi kasuetan, pantaila hau azalduko da (2-3 irudia):




2-3 irudia

Bestalde, driverrak instalatu nahi badituzu, menuaren lehenbiziko aukera hautatu behar duzu ("**Install Driver (CWA.1.10)**"). Ikus 2-3 irudia.

Une horretan hasiko da instalazio-prozesua.


Azaltzen den lehenengo pantailak irekita dauden programa guztiak ixteko eta azaltzen den aukera bakarra (**Instalar el dispositivo DSL**) hautatzeko gomendatuko dizu (2-4 irudia). Sakatu **Siguiente**.



2-4 irudia


Gero, kontratatu duzun zerbitzu-mota adierazi behar duzu (2-5 irudia). Kasu honetan, hau hautatu behar da: **PPPoA (RFC 2364)**.

Sakatu **Siguiente**.




2-5 irudia

Une horretan, modemak funtzionatzeko behar dituen fitxategiak instalatzen hasiko dira (2-6 irudia). Handik minutu gutxira, instalazio-prozesua amaitu dela adierazten duen pantaila azalduko da.



2-6 irudia


Lehen esan bezala, pantaila hau azaltzen da fitxategien kopia ongi exekutatu ondoren.
2-7 irudia



2-7 irudia

Mezuan azaltzen den bezalaxe, orain, modema ordenagailuaren USB atakara eta telefono-kablea telefono-hartunera konektatu behar dira.

Konektatutakoan, mezua desagertu eta oraintxe konektatu duzun hardwarea aurkituko du ordenagailuak. (2-8 irudia).



2-8 irudia

Azkenik, arazorik izan ez bada, prozesua amaitu eta aurrerapen-leiho itxi egingo da. Hala, gailua eta haren driverrak instalatuta izango dituzu. (2-9 irudia).



2-9 irudia

Modema konektatzea

Modema eta hari dagozkion driverrak instalatuta daudela, eta prozesuan arazorik izan ez bada, mahaigainean beste bi ikono azalduko dira.

Batek **ZyXEL ADSL USB Modem Control Panel** izena du, eta, haren bidez, hardware berriarekin lotutako alderdi teknikoak konfiguratu ahal izango dituzu.

Beste ikonoak **ZyXEL DIAL UP** izena du, eta ADSLaren bidez konektatzeko lotura izango da. (3-1 irudia).



3-1 irudia

Beraz, **ZyXEL DIAL UP** sakatzen baduzu, konexio-leiho irekiko da. (3-2 irudia).



3-2 irudia

EuskaTelek emandako erabiltzaile-izena (*erabiltzailea@euskaldsl* motakoa, erabiltzailearen tokian sarbide-kontua jarrita) eta pasahitza ipinita, konexioa egin ahal izango duzu. Konektatu nahi duzun bakoitzean pasahitza sartu nahi ez baduzu, pasahitza gogorarazteko laukia hautatu behar duzu. Gainerako parametroak ez dira aldatu behar, adibidez, markatu beharreko telefono-zenbakia.

Ez bada konektatzen, **ZyXEL ADSL USB Modem Control Panel** ikonoaren bidez egiazta dezakezu konexioa. Bi aldiz klik egiten baduzu, pantaila hau azalduko da. 3-3 irudia.




3-3 irudia

Goiko **Configuración de protocolo** fitxan sartuta, **Identificador de ruta virtual VPI** eta **Identificador de ruta virtual VCI** balioak ikus ditzakezu. Hauek dira balio optimoak:

- **Identificador de ruta virtual VPI: 8**
- **Identificador de ruta virtual VCI: 35**

Ikus 3-4 irudia.




3-4 irudia

Beste fitxari dagokionez –**Configuración de línea**– gehienetan ongi funtzionatzeko behar izaten dituen balioak ditu lehenetsita.

Hala ere, ezin baduzu nabigatu, beste modulazio-mota bat hauta dezakezu, egokia aurkitu arte (ADSLaren Led-a finko geratzen ez bada, beste modulazioekin probatu behar duzu. Ikus 3-5 irudia). Led-ak dir-dir egiten badu, eramailerik ez dagoela esan nahi du, eta, beraz, ez duela ADSL linea ezagutzen.


Horretarako, hainbat modulazio-mota hautatu behar dira, eta bakoitzarekin ongi nabigatzen duen probatu. Ikus 3-5 irudia.



3-5 irudia


Modema eta konexioa desinstalatzea

Modema desinstalatu nahi baduzu, hautatu **Uninstall ZyXEL ADSL USB módem** ikonoa (**Inicio – Programas – ZyXEL ADSL USB MODEM - Uninstall ZyXEL ADSL USB Modem**). Ikus 4-1 irudia.



4-1 irudia

Pantaila hau azalduko da. 4-2 irudia.



4-2 irudia

Pantaila horretan, hautatu **Desinstalar el asistente y el dispositivo DSL**. **Siguiente** sakatzen baduzu, ohar-mezu hau azalduko da. 4-3 irudia



4-3 irudia

Sí sakatzen baduzu, driverrak eta ADSLari dagozkion fitxategiak desinstalatzen hasiko dira.

Prozesua amaitzean, ongi desinstalatu dela jakinaraziko dizun azken leihoa azalduko da. 4-4 irudia



4-4 irudia